araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak 2,5 milioi euro bideratuko ditu Vitoria-Gasteizko kirol instalazioak, industrialdeak eta beste azpiegitura batzuk hobetzeko

Ekarpen horren bidez, 3,1 milioi euroko inbertsio-programa baten zati bat finantzatuko da. Programak futbol zelaietan, Gamarrako Errugbi Hirian, bizikleta-loturetan eta ALAVABUSen geralekuetan jarduketak egitea aurreikusten du

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 3a. Arabako Foru Gobernu Kontseiluak 2,5 milioi euroko dirulaguntza ematea onetsi du gaur Vitoria-Gasteizko Udalari, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak proposatuta. Dirulaguntza horren bidez, hiriburuko herritarrei ez ezik, Arabako Lurralde Historiko osoko biztanleei ere zerbitzua ematen dieten azpiegitura eta ekipamendu publikoetan inbertsioak finantzatuko dira.

Ekarpena bi erakundeen arteko lankidetza-hitzarmen baten bidez gauzatuko da, eta 3,1 milioi euroko udal inbertsio-programa baten zati bat finantzatzeko erabiliko da. Programak kirol instalazioak, industrialdeak, bizikleta-loturak, garraio publikoko geralekuak eta toki-erakunde txikietako azpiegiturak hobetzeko jarduketak jasotzen ditu.

Aurreikusitako inbertsioen artean, 1.250.000 euroko lehen multzo bat nabarmentzen da, kirol instalazioak hobetzera bideratua. Multzo horretan Olaranbe, Zaramaga eta Adurtzabal futbol zelaietan eta Gamarrako Errugbi Hirian jarduketak egitea aurreikusten da.

Bigarren multzoak, 1.250.000 eurokoa hori ere, industrialdeetan eta toki-erakunde txikietan eraberritze-lanak eta asfaltatze integralak egitea jasotzen du. Era berean, Miñaoko Teknologia Parkearekiko bizikleta-lotura egiteko obrak barne hartzen ditu, zehazki, Gamarrako Ataria eta N-240 errepidearen arteko tartean.

Azkenik, programak beste 600.000 euro aurreikusten ditu Vitoria-Gasteizko ALAVABUSen geralekuak egokitzeko eta toki-erakunde txikietan inbertsioak egiteko.

Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren abiapuntua da hiriburuan kokatutako azpiegitura askok lurraldeko beste udalerri batzuetan bizi diren pertsonei ere zerbitzua ematen dietela.

Horixe gertatzen da, besteak beste, kirol, kultura, hezkuntza, osasun, garraio eta aisialdiko instalazioekin. Azpiegitura horien erabilera udalerriko mugetatik harago doa, eta horiek mantentzeak eta hobetzeak ahalegin ekonomikoa eskatzen dio Vitoria-Gasteizko Udalari.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak lehorteak kaltetutako ustiategientzako 1,95 milioi euroko laguntzen deialdia onetsi du

Foru Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio 2026ko udako tenperatura altuen eta prezipitazio faltaren ondorioak arintzeko aurretik iragarritako laguntzen deialdiari

Arabako Foru Gobernu Kontseiluak klima-aldaketaren ondorioen aurrean Arabako nekazaritza-sektorearen egokitzapena, erresilientzia eta jasangarritasuna indartzeko laguntzen deialdia onetsi du gaur, 1.950.000 euroko aurrekontuarekin. Arabako Foru Aldundiak aurretik iragarritako neurria da, 2026ko udan izandako lehortearen eta tenperatura altuen ondorioak arintzen laguntzeko.

Nekazaritza Sailak sustatutako deialdia azken hilabeteetako ezohiko baldintza klimatikoen ondorioz beren jarduera kaltetuta ikusi duten nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiei zuzenduta dago, bai ekoizpenaren errendimendua murriztu delako, bai ekoizpen-kostuak handitu direlako.

Abetxukon kokatutako Euskalmeten estazio meteorologikoaren datuek agerian uzten dute udan izandako baldintza klimatikoen ezohikotasuna. Epe horretan, 30 gradutik gorako tenperatura maximoak izan ziren 60 egunetan, eta 35 gradutik gorakoak 21 egunetan.

Gainera, pilatutako prezipitazioa 27 milimetrokoa baino ez zen izan, batez besteko historikoa 105,52 milimetrokoa denean. Horrek esan nahi du prezipitazioak % 74 inguru murriztu zirela ohiko balioekin alderatuta.

Baldintza horiek estres termiko eta hidriko egoerak eragin dituzte, eta udako labore nagusien garapenean eragina izan dute. Zehazki, deialdiak patata, babarrun, arto, azukre-erremolatxa, ekilore eta porru ekoizleentzako laguntzak jasotzen ditu.

Halaber, behi-, ardi-, ahuntz- eta zaldi-aziendako ustiategiak eta erlezaintzakoak ere sartzen dira laguntzen artean.

Abeltzaintza-ustiategien kasuan, prezipitazio faltak bazka-baliabideen eskuragarritasuna murriztu du, eta ustiategi askok kanpoko elikagai gehiago erosi behar izan dituzte aziendarentzat, ekoizpen-kostuak handituz.

Era berean, udako labore nagusien ureztatzeko beharrak % 30 inguru handitu dira batez beste, aurreko kanpainarekin alderatuta.

Ustiategi mota bakoitzera egokitutako laguntzak
Dirulaguntzen zenbatekoa ustiatutako azaleraren edo ustiategi bakoitzeko animalia kopuruaren arabera ezarritako moduluen bidez zehaztuko da, baldintza klimatikoek eragindako errendimendu-galerak eta kostuen igoera kontuan hartuta.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

Nekazaritza-laboreen kasuan, laguntzak hektareako 50 eurotik 380 eurora bitartekoak izango dira: 50 euro ekilorearentzat eta 380 euro ereiteko patatarentzat. Era berean, hektareako 225 euro ezartzen dira kontsumorako patatarentzat, 210 euro babarrunarentzat, 200 euro azukre-erremolatxarentzat, 75 euro artoarentzat eta 220 euro porruarentzat.

Abeltzaintza-ustiategien kasuan, moduluak espeziearen eta ekoizpen-orientazioaren arabera ezartzen dira. Horrela, laguntzak 60 eurokoak izango dira 24 hilabetetik gorako haragitarako behi bakoitzeko; 36 eurokoak 24 hilabetetik gorako esnetarako behi bakoitzeko eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten adin horretatik beherako hazkuntzako bigantxentzat; eta 30 eurokoak 12 hilabetetik gorako haragitarako zaldi-eme bakoitzeko.

Ardi- eta ahuntz-ustiategietan, 6 euro emango dira eme ugaltzaile bakoitzeko, eta erlezaintza-ustiategiek 9 euro jaso ahal izango dituzte erlauntz bakoitzeko.

Eskatzaile bakoitzak gehienez 15.000 euro jaso ahal izango ditu, eta ez da 300 eurotik beherako ordainketarik egingo.

Laguntzen onuradun izan ahalko dira dagozkien erregistroetan inskribatutako ustiategien titularrak, baldin eta 2026ko Nekazaritza Politika Bateratuaren Eskaera Bakarra Araban aurkeztu badute, egoitza fiskala lurraldean badute eta ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Eskaerak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da, erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak 495.000 euro bideratuko ditu CIC energiGUNEren ikerketa-azpiegiturak indartzeko

Ekarpenari esker, laborategi berri bat abian jarri eta energia biltegiratzen eta bihurtzen espezializatutako zentroaren gaitasun zientifiko eta teknologikoak hobetu ahal izango dira

Arabako Foru Gobernu Kontseiluak 495.000 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea onetsi du gaur CIC energiGUNEri, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak proposatuta. Laguntzaren helburua da zentroaren gaitasun zientifiko-teknologikoak indartzea eta energia biltegiratzearen eta bihurtzearen arloko ikerketa-azpiegiturak hobetzea.

Laguntza Arabako Foru Aldundiaren eta CIC energiGUNE Energia Alternatiboen Ikerketa Kooperatiboko Zentroaren Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmen baten bidez gauzatuko da. Hitzarmenak instalazioak hobetzeko eta ekipamendu zientifikoen funtzionamendua eta fidagarritasuna bermatzeko hainbat jarduketa jasotzen ditu.

Aurreikusitako jarduketa nagusien artean, laborategi berri bat egokitzea nabarmentzen da. Laborategiak ikerketa-jarduera garatzeko beharrezko espazioak eta ekipamenduak izango ditu. Eskuhartzeak egokitzapen-lanak, altzari teknikoen hornidura, erauzketa- eta aireztapen-sistema espezifikoen instalazioa eta prozesuko gasen instalazioen egokitzapena hartzen ditu barne.

Hitzarmenak lehendik dauden ekipamendu zientifikoen eta ikerketa-plataformen mantentze- eta kalibrazio-lanak ere aurreikusten ditu, haien zehaztasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko.

Inbertsio horiek CIC energiGUNEren ikerketa-gaitasunak indartuko dituzte hainbat arlo estrategikotan, hala nola energia biltegiratzean, baterietan, energia termikoko soluzioetan eta hidrogenoaren teknologietan.

Zentro honi emandako babesa Arabako Foru Aldundiak ikerketaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustuaren barruan kokatzen da, Arabako ekoizpen-sarearen lehiakortasuna indartzeko funtsezko elementuak baitira.

Dirulaguntzari esker, lurraldeko azpiegitura zientifikoak indartzen jarraitu ahal izango da, eta Arabak energiaren trantsiziorako eta industriaren etorkizunerako garrantzi handia duen arlo batean ezagutza eta teknologia garatzeko duen gaitasuna sendotuko da.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak ia 341.000 euro bideratuko ditu Araban ikus-entzunezkoen sorkuntzako 22 proiektu sustatzeko

Laguntzek zinema-proiektuen garapena, film luzeen, film laburren eta telesailen ekoizpena eta gidoien idazketa bultzatuko dituzte

Arabako Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko ikus-entzunezkoen sorkuntzarako laguntzen deialdia ebaztea onetsi du gaur, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak proposatuta. Guztira 340.990 euro bideratuko dira zinema eta ikus-entzunezkoen industriarekin lotutako 22 proiektu sustatzera.

Dirulaguntza-ildo honen helburua da Araban ikus-entzunezkoen jarduera garatzen laguntzea, sektoreko enpresei eta profesionalei babesa ematea eta lurraldean jarduera ekonomikoa, enplegua eta aukera berriak sortzeko gaitasuna duen sormen-industria sendotzea.

Deialdiak bost laguntza-modalitate jasotzen ditu, sormen-prozesuaren hainbat fase hartzen dituztenak: gidoien idazketa, proiektuen garapena eta film luzeen, dokumentalen, film laburren eta telesailen ekoizpena.

Diru-kopururik handiena film laburren ekoizpenera bideratuko da: 120.000 euro, zazpi proiekturen artean banatuta. Bestalde, zinema, plataforma digital eta telebistarako proiektuen garapenak 110.990 euro jasoko ditu, zortzi ekimen laguntzeko.

Film luzeen eta sormen-dokumentalen ekoizpenerako laguntzak 50.000 eurokoak izango dira, bi proiekturentzat. Telesailen ekoizpenak 20.000 euro jasoko ditu, proiektu bakar baterako. Azkenik, gidoien idazketarako modalitateak lau proiektu lagunduko ditu, guztira 40.000 eurorekin.

Laguntzen onuradunen artean, besteak beste, Txakur bati koska, Horma, Zur eta lur, Hermanos Pou, la cuerda invisible, Estoucha, La Torre de los suicidios, Sehaska garaiak, Ganado perdido eta Xare proiektuak daude. Horiek guztiek deialdira aurkeztutako formatuen eta sormen-proposamenen aniztasuna erakusten dute.

Proiektuen hautaketa lehia bidezko prozedura baten bitartez egin da. Bertan, proiektuen kalitate artistikoa eta profesionala, originaltasuna, bideragarritasun ekonomikoa eta eragin sozioekonomikoa baloratu dira, besteak beste.

Onetsitako laguntzek ekoizpen berriak abian jartzen lagunduko dute, baita sormenaren eta garapenaren hasierako faseak sustatzen ere. Fase horiek funtsezkoak dira ikus-entzunezkoen ekimenek aurrera egin dezaten eta finantzaketa zein banaketa aukera berriak aurki ditzaten.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak 300.000 euro bideratuko ditu Araban mahastietako aseguruak kontratatzen laguntzeko

Laguntzak 2026-2027 mahastizaintza-kanpainako polizei zuzenduta daude, eta estatuko dirulaguntzak osatuko dituzte, ustiategien babesa errazteko

Arabako Foru Gobernu Kontseiluak ardogintzarako mahatsaren nekazaritza-aseguruak kontratatzeko 2026-2027 kanpainako laguntzen deialdiaren izapidetze aurreratua onetsi du gaur, Nekazaritza Sailak proposatuta. Deialdiak 300.000 euroko hasierako zuzkidura izango du.

Dirulaguntza-ildo honen helburua da Arabako mahastizaintza-ustiategietan aseguruak kontratatzea erraztea eta ekoizpenean eragina izan dezaketen arriskuen aurrean babesa ematea, bereziki eguraldi txarraren ondoriozko fenomenoen aurrean.

Laguntzek Nekazaritzako Aseguruen Estatuko Erakundeak (ENESA) ematen dituen dirulaguntzak osatzen dituzte, eta AGROSEGUROren bidez kudeatzen dira, Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan.

Deialdiak laguntza-ehuneko desberdinak aurreikusten ditu kontratatutako poliza motaren arabera. Oinarrizko aseguruaren eta berme gehigarrien moduluetan, foru ekarpena ENESAk emandako dirulaguntzaren % 45ekoa izango da. P moduluan, berriz, estatuko laguntza horren % 30ekoa izango da.

Kasu guztietan, poliza bakoitzeko gutxieneko dirulaguntza 100 eurokoa izango da, eta gehienekoa 2.200 eurokoa. Laguntzak poliza nagusiei bakarrik aplikatuko zaizkie, eta poliza osagarriak kanpo geratuko dira.

Nekazaritza Sailaren ustez, nekazaritza-aseguruak tresna garrantzitsua dira mahastizaintza-ustiategien egonkortasuna bermatzen laguntzeko, baldintza meteorologikoek eta muturreko fenomeno klimatikoek uztaren errendimendua eta ustiategien bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jar ditzaketen testuinguru batean.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Trantsizio Energetikoko Bulegoa sortu du, herritarrei, enpresei eta toki erakundeei laguntzeko

Aholkularitza integrala eskainiko du energia birgaitzeari, efizientziari, energia berriztagarriei, mugikortasun jasangarriari eta energia komunitateei buruz

Trantsizio energetikoa erronka nagusietako bat da emisioak murrizteko eta eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko beharraren aurrean. Errealitate horri erantzuteko eta prozesu horretan aurrera egiteko, Gobernu Kontseiluak gaur goizean onetsi du Trantsizio Energetikoko Bulegoa (TEB) sortzeko zerbitzua kontratatzea.

Zerbitzu horren helburua da herritarrei, enpresei, auzo komunitateei eta toki erakundeei energiaren arloko informazioa, aholkularitza eta laguntza espezializatua ematea. Ekimenak aukera emango du lehendik dagoen laguntza teknikoa indartzeko eta haren irismena handitzeko, trantsizio energetikoarekin eta deskarbonizazioarekin lotutako erronka berriei erantzuteko.

Bulegoak erreferentzia teknikoko espazio fisiko eta birtual gisa funtzionatuko du, eta leihatila bakar gisa jardungo du, energia efizientziarekin, eraikinen birgaitzearekin, energia berriztagarriekin, autokontsumoarekin, mugikortasun jasangarriarekin eta energia komunitateekin lotutako irtenbideetarako sarbidea errazteko. Hala, lurraldeko eragileei orientazioa emango die proiektuak garatzeko fase guztietan, aukerak identifikatzetik hasi eta izapidetze administratiboraino eta balizko laguntza lerroak eskuratzeraino.

Helburua da laguntza egitura hurbila eta fidagarria ematea tokiko kolektiboei, talde eragileei, auzo komunitateei eta enpresa ehunari, beren proiektuetarako behar duten izapidetze teknikoa, administratiboa eta finantzarioa erraztuz.

Era berean, finantza tresnei, laguntza publikoei eta benetako kostuak zorroztasunez kalkulatuko dituzten ereduei buruzko aholkularitza emango da. Bereziki, TEBek toki erakundeei eta landa eta industria inguruneei berariaz laguntzea bilatuko da, konponbideak haien errealitate espezifikora eta dimentsiora egokituz.

TEBek jarraipena emango dio komunitate energetikoen arloan azken urteetan egindako lanari, eta orain bere zerbitzuak funtsezko beste eremu batzuetara zabalduko ditu, aurrera egiteko energia eredu jasangarriago baterantz. Besteak beste, informazio, sentsibilizazio, prestakuntza eta aholkularitza teknikoko lanak egingo ditu, eta laguntza pertsonalizatua emango die energia aurrezteko eta energia berriztagarria sortzeko ekimenak bultzatu nahi dituzten pertsona, enpresa eta administrazioei.

Zerbitzu hori emateko aurrekontua 270.000 euro da, BEZa barne, urtebeteko epea egongo da gauzatzeko, eta beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da.

Etorkizuneko bulegoak aukera emango du diziplina anitzeko talde tekniko bat izateko, zeina arduratuko baita lurralde osoan trantsizio energetikoa sustatzeko beharrezkoak diren aholkularitza, zabalkunde eta laguntza lanak egiteaz.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Foru Aldundiak AP-68 sartu du Errepideak Kontrolatzeko Zentroa kudeatzeko kontratuan

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Arabako Errepideak Kontrolatzeko Zentroa kudeatzeko instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasunerako datuak ustiatzeko eta laguntza teknikorako kontratuaren aldaketa, AP-68 autobidearen Arabako zatia sartzeko xedearekin. Halaber, 2028ko otsailaren 8ra arteko luzapena onetsi du.

Halaber, kontratu horrek barnean hartzen ditu seinaleak eta errepideetako beste elementu batzuk hobetzeko eta berritzeko jarduketak, bai eta foru sareko neurketa egitasmoa gauzatzea ere.

Akordioak onespena ematen dio BKK Álava ABEEri esleitutako kontratuaren aldaketari, haren irismena handitzeko azaroaren 11tik aurrera AP-68 autobidearen Arabako tarteko 55 kilometroetara eta haren elementu funtzional eta instalazio guztietara (multzo elektrogenoak, armairu elektrikoak, elikadura- eta argi-sistemak, etab.).

Kontratuak honako hauek jasotzen ditu: elementu horiek kontserbatzea eta ustiatzea; aurreikusitako giza baliabideak eta baliabide materialak egokitzea; eta zaintzari, larrialdiei aurre egiteari eta neguko bide zaintzari buruzko zerbitzu estandar jakin batzuk egokitzea, ordainpeko autobide baten ezaugarrien arabera.

Aldaketa horren helburua da 2028ko otsailaren 8ra arte kontratuaren gehieneko aurrekontua 326.248 eurotan handitzea, eta AP-68 autobidean bide segurtasuneko, eraginkortasuneko eta zerbitzuaren kalitateko mailarik onenak bermatzea, Arabako Foru Aldundiak datorren azaroaren 11n haren kudeaketa bere gain hartzen duen unean.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du, halaber, Bide Azpiegituren Zuzendaritzaren mendeko hornidura puntuetarako energia elektrikoaren kontratua aldatzea, AP-68 autobidearen hornidura puntuak sartzeko bertan. Aldaketa horren ondorioz, kontratuaren gehieneko aurrekontua 34.000 euro handituko da 2027ko abenduaren 31ra arte.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Markizko elizako kanpai-horma konpontzeko lanak finantzatuko ditu

Foru Gobernu Kontseiluak 11.011 euroko dirulaguntza onetsi du, toki-erakundeetako larrialdiko obretarako laguntza-programaren bidez jarduketa hori egiteko

Arabako Foru Gobernu Kontseiluak 11.011 euroko dirulaguntza ematea onetsi du gaur Markizko Administrazio Batzarrari, herriko elizako kanpai-horma konpontzeko eta sendotzeko obrak finantzatzeko.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak sustatutako laguntza hori 2026ko deialdiaren barruan dago. Deialdi horren helburua da Arabako toki-erakundeek beren baliabideekin finantzatu ezin dituzten ustekabeko egoerei eta larrialdiko obrei aurre egitea, pertsonentzat benetako arriskuak edo arrisku potentzialak sor ditzaketenean.

Aurreikusitako jarduketa elizako kanpai-horma konpontzean eta sendotzean datza. Markizko Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaera teknikoki aztertu ondoren, obra hori diruz laguntzeko modukotzat jo da.

Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako aurrekontu osoa finantzatuko du, hau da, 11.011 euro, toki-erakundeak beharrezko lanak egin ahal izan ditzan.

Larrialdiko obretarako foru laguntza-programaren helburua da Arabako udalerri eta kontzejuetan sortzen diren ustekabeko egoerei erantzutea, bereziki beharrezko esku-hartzeek toki-erakundeen gaitasun ekonomikoa gainditzen dutenean.

Dirulaguntza-ildo honen bidez, Foru Aldundiak lurraldeko herrietako premiazko beharrei erantzun nahi die, herritarren segurtasunean lagunduz eta aparteko jarduketei aurre egiteko baliabide gutxien dituzten toki-erakundeei babesa emanez.

Diruz lagundutako obrak 2026ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira, eta justifikazio-kontua aurkezteko epea 2027ko martxoaren 31n amaituko da.

2026ko deialdiaren bigarren ebazpen honetan, Moredako Udalak udal artxiboa konpontzeko aurkeztutako eskaera ere aztertu da. Eskaera hori ukatu egin da, jarduketak ez dituelako betetzen larrialdiko obratzat hartzeko ezarritako baldintzak.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus